

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EUSKARA, KULTURA ETA MKIROL SAILA

216/2016 Foru Agindua, irailaren 9koa, onartzen duena Lazarraga sarien IV. edizioaren deialdia

Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailak, Euskararen Foru Zerbitzuaren bidez, Lazarraga sarien deialdia egiten du, laugarren edizioan, hainbat entitate eta pertsonak Arabako Lurralde Historikoko eta/edo Trebiñuko Konderriko esparru sozioekonomikoan euskara txertatu eta hedatzen egindako lana saritzeko.

Sarien funtsa erakunde eta gizarte ezagutza bat egitea da Arabako Lurralde Historikoan eta/edo Trebiñuko Konderrian hizkuntza normalizazioan egindako lanari.

Aginduzko txostenak azertu dira.

Horregatik, eta dagozkidan ahalmenak erabiliz,

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Lazarraga sarien IV. edizioaren deialdia onartzea.

Bigarrena. Deialdi hau arautuko duten oinarriak onartzea, zeintzuk espedienteari erantsita baitaude.

Hirugarrena. Deialdi hau ALHAOn argitaratzea.

Gasteiz, 2016ko irailaren 9a

Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatua
IGONE MARTINEZ DE LUNA UNANUE

Eranskina Lazarraga Sariak

Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailak Lazarraga sarien deialdia egiten du, laugarren edizioan, hainbat entitate eta pertsonak Arabako Lurralde Historikoko eta/edo Trebiñuko Konderriko esparru sozioekonomikoan euskara txertatu eta haren presentzia hedatzen egindako lana saritzeko.

Sarien funtsa erakunde eta gizarte ezagutza bat egitea izango da Arabako Lurralde Historikoko eta/edo Trebiñuko Konderriko esparru sozioekonomikoan euskara txertatu eta haren presentzia hedatzen egindako lanari.

Oinarriak

Lehenengoa. Xedea

Lazarraga sarien xedea da saritzea hainbat entitate eta pertsonak Arabako Lurralde Historikoko eta/edo Trebiñuko Konderriko esparru sozioekonomikoan euskara txertatu eta hedatzen egindako lana.

Bigarrena. Parte hartzaileak

Lazarraga sariak jasotzeko, entitate nahiz pertsona fisikoek zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñuko Konderrian izan behar dute.

Hirugarrena. Sariak

1. Sariak Lazarragaren eskuizkribuan oinarritutako 15 litografia izango dira, aukeratzen den hautagaitza bakoitzari banatzeko, eta Lazarragaren eskuizkribuaren 5 ale modalitate bakoitzean irabazten duen hautagaitza bakoitzari.

2. Bost sari ezartzen dira, entitateentzat eta pertsona fisikoentzat.

Laugarrena. Irizpideak

Balioetsiko da Arabako Lurralde Historikoko eta/edo Trebiñuko Konderriko esparru sozioekonomikoan euskara txertatu eta haren presentzia hedatzen egindako lana, hau da, "Lanabes-Araban Euskara Lanean" lan mahaiaren helburua.

Irizpide hauek hartuko dira kontuan:

- zerbitzua euskaraz emateko hartu diren neurriak
- lana euskaraz egiteko hartu diren neurriak
- euskaraz lan egiteko baliabideak
- kontratazioak
- barruko dokumentazioa
- hizkuntza paisaia
- kanpoko komunikazioa
- produktuaren kontsumitzaile eta erabiltzaileentzako elementuak
- euskaraz egindako prestakuntza
- euskara prestakuntza lanean
- euskara esparru sozioekonomikoan sustatzearekin lotutako beste edozein neurri

Bosgarrena. Prozedura eta epea

1. Hautagaitzak pertsona fisikoek zein entitateek aurkez ditzakete, baldin eta egoitza Arabako Lurralde Historikoan edo Trebiñun badute; modalitate bakoitzerako hautagaitza bakarra onartuko zaio proposamena egiten duen pertsona fisiko edo entitate bakoitzari.

Balioetsiko dira emandako informazioa eta egindako proposamenaren arrazoen azalpena; horretarako, edozein euskarri informatiko edo ikus-entzunezko aurkeztu ahal izango da, hautagai gisa proposatzen den entitatearen edo pertsonaren ekintzak erakusteko.

2. Eskaerak aurkezteko epea hogeita hamar egun naturalekoa izango da, deialdi hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Arabako Foru Aldundiaren Euskara, Kultura eta Kirol Sailean entregatu edo bertara bidali behar dira (Probintzia plaza 5, 3.a, 01001 Gasteiz), eskaeraren kanpoko aldean "IV. Lazarraga sariak" jarrita.

Halaber, hautagaitzak sare sozialen bidez (Twitter, Facebook) bidali ahal izango dira, bai eta horretarako jartzen diren web orrien bidez ere: lanabes.eus

Seigarrena. Epaimahaia eta erabakia

1. Epaimahai kalifikatzailea "Lanabes – Araban Euskara Lanean" (<http://lanabes.eus/talde-eragilea/>) lan mahaiako kideek osatuko dute, Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuak

izendaturik. Epaimahai horrek, hasiera batean, modalitate bakoitzeko 15 hautagaitzarik onenak aukeratuko ditu. Hautagaitza irabazlea sariak emateko gala ekitaldian ezagutaraziko da.

2. Sariak eman gabe utz daitezke, epaimahaiak hala erabakitzen badu.

3. Epaimahaiaren erabakiaren aurka ezin izango da gora jo. Erabakia epaimahaikideen gehiengo soilaz hartuko da, eta epaimahaiak izango du eztabaidetan sortzen diren gorabehera guztiak ebazteko ahalmena.

4. Deialdi honetako sariak ematea Euskara, Kultura eta Kirol Saileko foru diputatuaren foru agindu bidez ebatziko da, epaimahaiaren proposamena ikusirik, zeina arrazoitua izango baita, eta amaiera emango dio administrazio bideari.

Zapigarrena. Oinarriak onartzea

Parte hartzaileek, deialdi honetan parte hartze hutsez, onartu egiten dituzte bertan zehazten diren baldintza guztiak, eta espresuki men egiten diete horiei.

Zortzigarrena. Eskumena

Arabako Foru Aldundiko Euskara, Kultura eta Kirol Sailak baino ez du deialdian sor edo ager daitezkeen auzi guztiak ebazteko eskumena.

Bederatzigarrena. Publizitatea

Deialdi hau ALHAOn argitaratuko da, eta ahalik eta zabalkunderik handiena emango zaio gizarte hedabideetan.